

Bergarako Udalaren eta Jardun Euskara Elkartearen arteko HITZARMENA, AUZOKO programa 2018ko irailaren 1etik 2019ko abuztuaren 31ra bitartean diruz laguntzekoa

Bergaran, bi mila eta hamazortziko abenduaren hogeita batean

BILDU DIRA:

Alde batetik, MARIA ELENA LETE GARCIA andrea, Bergarako Udaleko alkatea, Bergarako Udalaren ordezkartzan.

Eta bestetik, PEIO ANDRINUA IRAOLAGOITIA jauna, Jardun euskara elkartearen lehendakaria, elkarte horren izenean. Azken honek alkate andrearen aurrean zinpearri aitortu du bera eta berak ordezkatzeko duen elkarte ez daudela Estatuaren 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak aurreikusitako debeku kasuetan.

Bi aldeek elkarri aitortzen diote ordezkatzeko duten entitateak ordezkatzeko eta behartzeko gaitasuna eta, hala, honakoa

ADIERAZI DUTE:

- 1.- Topagunea euskara elkarten federazioak, UEMArekin lankidetzan, besteak beste, herrira etorri berriak euskarara hurbiltzea helburu duen AUZOKO izeneko programa diseinatu zuela 2009an.
- 2.- Bergarari dagokionez, Topaguneko kide den Jardun euskara elkarteak —Bergarako Udalaren laguntzarekin— Auzoko programaren esperientzia pilotua bideratu zuen 2009 eta 2010 urteetan; ondoren 2011n, 2012an, 2013an eta 2014an Topaguneko bideratu zuen eta 2015ean, 2016an eta 2017ko lehen sei hilabeteetan berriz ere Jardun euskara elkarteak —Topagunearen eta Bergarako Udalaren laguntzarekin— arduratu da Bergarako Auzoko egitasmoa koordinatzeaz.
- 3.- Udaleko Euskara batzordeak, bere aldetik, orain arteko lanaren balorazio positiboa egin du, betetzen dituen hainbat funtzio sozial kontuan hartuta:
 - 1.- Euskaratik urrun daudenak euskarara hurbiltzea.
 - 2.- Herritarrak herriko hizkuntza aniztasunaz jabetzea eta elkarren arteko ezagutza eta kulturartekotasuna lantzea.
 - 3.- Euskararen bidez komunikazioa eta gizarte-kohesioa indartzea eta programak eragiten diren kolektiboen bazterketa saihestea.



4.- Hori hala izanik, **Jardun euskara elkarteak 2018ko irailaren 1etik 2019ko abuztuaren 31ra bitartean Bergarako AUZOKO egitasmoa zuzenean kudeatzeko proposamena egin du** (eranskinean agertzen da). Udalak, Alkateak 2018ko abenduaren emandako Dekretu baten bitartez, egitasmo hori ontzat ematea, diruz laguntzea eta bi aldeek betebeharrak hitzarmen batean jasotzea erabaki duela.

Hala, beraz, bi aldeek honako klausulak dituen hitzarmena egitea onartu dute:

KLAUSULAK

LEHENENGOA: Jardunek, Topagunearekin elkarlanean eta Bergarako dinamizatzaile baten bidez, **Auzoko programa bideratuko du Bergaran 2018ko irailaren 1etik 2019ko abuztuaren 31ra** (biak barne), hitzarmen honen eranskinean agertzen diren proposamenen arabera.

BIGARRENA: **Bergarako Udalak 11.047,91 euro euroko diru-laguntza emango dio** proiektu hori burutzeko Jardun elkarteari.

Diru-laguntza hori 3 zatitan emango da, era honetan: hitzarmena sinatzean %30, 2019ko otsailean %30 eta beste %40 2019ko irailean. Azkeneko zatia ordaintzeko, aurrez ekintzaren memoria, balantze ekonomikoa eta gastuen zuri-egiriak aurkeztu beharko dira eta Euskara Batzordeak ontzat eman beharko du.

HIRUGARRENA: Horretaz gain, JARDUN elkarteak honako konpromisoak hartzen ditu:

- a) Bergarako Udaleko Euskara zerbitzuarekin koordinatuko da gutxienez bi hilean behin (aurreko bileraz geroztik egindakoaren balorazioa azaltzeko eta ondorengo hilabeteetakoak lantzeko). Era berean, interesekoak izan daitezkeen bestelako foroetan ere parte hartuko du, besteak beste Udalean etorri berrientzako programak koordinatzeko egiten diren bileratan edo interes berezia izan lezaketen bestelako lantaldeetan.
- b) Ekintzaren gaineko zabalkunde-oharretan Bergarako Udalaren laguntza jaso izana adieraziko du.
- c) Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketetan egunean dagoela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu hitzarmena sinatu aurretik.
- d) Bergarako Udalaren aurrean ziurtatu beharko du baldintza guztiak betetzen dituela, hala nola, diru-laguntza jasotzen duen zerbitzuaren jarduerara eta helburua betetzen direla.
- e) Udalak egin litzakeen ikuskapenak erraztuko ditu.
- f) Bergarako Udala jakinaren gainean jarriko du baldin eta Udalak diruz laguntzen duen jarduerarako beste diru-laguntzarik lortuz gero. Beste diru-laguntzaren bat jasoko dela jakin bezain azkar jakinarazi behar zaio Udalari, eta, betiere, azken zatia ordaindu baino lehen.
- g) Gutxienez bost urtez gordeko ditu jasotako diruari eman zaion erabilera agertzen duten agiri originalak.

LAUGARRENA: Udalak emango duen diru-laguntzaz gain helburu bera duen beste edozein diru-laguntza ere jaso daiteke.

Hala eta guztiz ere, diru-laguntzak (Udalarenak bakarrik edo beste batzuenekin batuta) ezingo du inolara ere altuagoa izan diruz laguntzen den jardueraren kostua baino.

BOSGARRENA: Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatuko balitz, edo Udalarenaz gain beste administrazio batek edo entitate pribatu edo publiko batek emandakoa jasoko balitz, gerta liteke emandako kopurua aldatzea.

SEIGARRENA: Diru-laguntza berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, baldin eta hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Diru-laguntza bete beharreko baldintzak bete gabe jasotzea.
- b) Diru-laguntza erabiltzea lortu beharreko helburua ez den beste helburu baterako.

Edozein arrazoiengatik, diru-laguntza (osoa edo zati bat) itzuli beharra balego, diru kopuru hori zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko da.

ZAZPIGARRENA: Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, diru-laguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa, eta lege hau garatzen duen erregelamendua, 2006ko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onartua, aplikatuko dira.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean bikoiztuta sinatzen dute.



PEIO ANDRINUA IRAOLAGOITIA
JARDUN ELKARTEKO LEHENDAKARIA



MARIA ELENA LETE GARCIA
BERGARAKO ALKATEA

ERANSKINA: Jardunek aurkeztu duen eskaria

AUZOKO egitasmoa, Euskararen Topaguneak proposatutako proiektua da, Bergarako Udalaren laguntzarekin Jardun Euskara elkarteak aurrera eramaten duena.

Bere **helburu nagusia da euskara batere ez dakitenak** —beste herrialde batzuetatik etorri berriak eta urteetan Bergaran bizi arren euskararekin oso harreman txikia dutenak— **euskarara hurbiltzea**; eta horretaz gain, herritarrak Bergaran den hizkuntza aniztasunaren jabe egitea, euskara proposatzea kohesiorako eta komunikaziorako tresna bezala eta, bide batez, integrazioarako urratsak ematea.

Horretarako, AUZOKO egitasmoak euskaratik urrun bizi direnak eta euskaldunak elkartzen dituen lagun taldeak osatzen ditu, astean behin ordu eta erdiz, modu ludiko batean euskarara gerturatzeko.

Egitasmo honetan euskara ez dakiten pertsoez gain, herritar euskaldun batzuk ere parte hartzen dute, laguntzaile modura. Hori dela eta, euskaldunak eta euskara ez dakitenak parte har dezakete.

Parte hartzeko ez da ezer ordaindu behar eta, printzipioz, astean behin taldean elkartu eta dinamika ludiko batzuen bidez euskara ikasteko lehen urratsak ematen dira.

2017-18 ikasturtean, laburbilduz, bi talderen dinamika (asteko saioak eta ekintza osagarriak) eta euskara lapikoan ikastaroa burutu dira. Bi taldeak ostiraletan elkartu dira kultur etxean, emakumeena 15:15ean eta mistoa 18:00etan. Euskara lapikoan 12 orduko ikastaroa martxoan burutu zen asteazken eta ostiraletan 11:00etatik 13:00era.

Parte hartzeari dagokionean, talde mistoan batz besteko parte hartzea 12 lagunekoa izan da eta emakumezkoena 4koa. Euskara lapikoan ikastaroan berriz, 11 pertsonak hartu zuten parte.

Asteroko ohiko saioez gain, **ekintza osagarriak** ere burutzen dira, **herrian antolatzen diren ekimenetan parte hartuz** zein **Auzokok berak planteatuta**, Bergaran herritarrekin harremana sustatu eta euskaraz zubi berriak eraikiz elkar ezagutza bultzatzeko.

Parte hartzaileak gerturatzeko, **herriko hainbat eragilerekin elkarlana** bultzatzen da; udaleko Euskara eta Ongizate zerbitzuekin, euskaltegiarekin eta EPArekin, ikastetxeetatik gutuna bidaltzen da...

Horretaz gain, **Auzokok** euskara ikasten hasteko zubi lana betetzen du, euskaratik urrun bizi diren horiek euskaraz eroso sentituko diren espazio bat eskaini, euskararekin harreman bat izan eta ondoren euskaltegirako bidea egin dezaten.

Auzoko egitasmoak euskaratik urrun bizi diren herritarrak euskarara gerturatu eta elkar ezagutza bideratzeko burutzen duen ekarpena aintzat hartuta, **Jardunek 2018/19 ikasturtean proiektuarekin jarraitzea erabaki du.**

2018/ 2019rako asmoak hauek dira:

- **Ostiral arratsaldetako talde mistoa indartu eta beraiekin lanean segi**, euskara elkargune gisa planteatuz ekintza ezberdinak aurrera eramaten jarraitzeko; **bai asteroko saioen bidez eta baita herriko kultur ekintza desberdinetan parte hartuz ere.**
- **Emakumeen taldea indartu eta berarekin lanean jarraitu.** Hasiera baten asteroko dinamikarekin eta zenbait garaitan (aste santua, ramadam-a...) maiztasuna gutxitu, hilean behin, edo tarte horretan etena egin. Asteroko saioez gain, ekintza bereziak eta osagarriak antolatu eta herrian antolatutako ekintzetan parte hartzeko ahalegina egingo da. Ikastaroak daudenean talde honetako kideak bertara bideratuko dira eta parte hartzera bultzatu.
- **Hiru hilean behin ikastaro laburrak** antolatuko dira alde teoriko eta praktikoarekin.
- **Arlo honetan lanean ari diren udal zerbitzuekin eta herriko beste eragile batzuekin** (Euskaltegia, EPA, beste ikastetxeak, Caritas...) **elkarlanean jarraitu.** Kurso hasieran bilera bat egiteko asmoa dago elkarren berri izan eta informazioa elkartrukatzeko.
- **Arlo honen inguruko informazioa zabaltu, partaide berriak animatzeko eta herritarrak sentsibilizatzeko:** esku-orrien bidez, ikastetxeetatik banatzen diren gutunen bidez, Twitter eta facebook, prentsaurrekoen bidez...

Eskaria

2018/19 ikasturtean Bergarako AUZOKO egitasmoarekin jarraitu ahal izateko, honako diru-laguntza eskatzen diogu Bergarako Udalari. 11.047,91 euro. Hemen zehaztasunak:

AUZOKO egitasmoa 2018ko irailaren 1etik 2019ko abuztuaren 31ra aurrera eramateko AURREKONTUA	
GASTUAK	ZENBATEKOA
PERTSONAL GASTUAK. 12 hilabeterako kontratua, hilean 34 orduko lanaldia	8.007,91 €
IRTEERAK ETA EKINTZAK	480,00 €
BESTE GASTU BATZUK	600,00 €
KOORDINAZIOA ETA AHOLKULARITZA	1.960,00 €
GUZTIRA	11.047,91 €